

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 2760

*135/2021 DEKRETUA, maiatzaren 11koa, zeinaren bidez berritzen baita Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluko kide baten izendapena, Hezkuntzako sailburuak izendatua.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeko ekainaren 29ko 19/1998 Legearen 14. artikulua bidez, Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua sortu zen.

Azaroaren 17ko 314/1998 Dekretuak Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua arautzen du. Bada, dekretu horren 3.1.b) artikuluan ezartzen denez, Kontseiluko kide izango dira, besteak beste, «bost bokal, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkari-tzan, sailburuak izendatuta».

Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 68.1 artikulua ezartzen du Kontseilu hori dela unibertsitate-sistema publikoaren xedeak eta helburuak zehazteko koordinazioko, aholkularitzako eta parte hartzeoko organoa. Bestalde, 68.2 artikulua xedatzen duenez, unibertsitate-arloan eskumena duen sailburua edo hark izendatutako ordezkaria izango da kontseiluburua. a) letran xedatutakoaren arabera, besteak beste, unibertsitate-gaietan eskumena duen sailaren sei ordezkari osatuko dute Kontseilua, sailburuak izendatuta.

Maiatzaren 23ko 108/2006 Dekretuak Kontseiluaren osaerari buruzko azaroaren 17ko 314/1998 Dekretuaren 3. artikulua aldatzen du, 3/2004 Legean ezarritakora egokitzeko.

Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua arautzen duen azaroaren 17ko 314/1998 Dekretuaren 7.2 artikulua arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak izendatutako kideek lau urtez beteko dituzte beren eginkizunak, izendatzen dituzten egunetik aurrera, eta agintaldia amaitzen denean, besteak beste, utziko dituzte beren eginkizunak.

Maiatzaren 23ko 159/2017 Dekretuaren bidez (maiatzaren 26ko EHAA) izendatu zuen Hezkuntzako sailburuak Jorge Arévalo Turrillas jauna Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluko bokal.

Horregatik, Hezkuntzako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2021eko maiatzaren 11n egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua arautzen duen azaroaren 17ko 314/1998ko Dekretuaren 7.2 artikuluan aipatzen den lau urteko aldia igaro denez, beste lau urtez luzatzea Lanbide Heziketako sailburuorde den Jorge Arévalo Turrillas jaunaren izendapena, 2021eko maiatzaren 15etik aurrerako ondorioekin; Hezkuntzako sailburuak izendatu zuen Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluko bokal.

2021eko maiatzaren 14a, ostirala

## AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 11n.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.